

# DONOSTIARRAK ETA EUSKARA

XVI-XVIII mendeak

Tomas Ugaldebere  
eta Mikel Madina



# AURKI BIDEA

- Sarrera

- Gaskoiak eta Donostia

- Donostiarrak, eliza eta euskara

- Hartzaileak

- Idazkiak

- XVIII mende amaiera

- 1. Eranskina

- 2. Eranskina

- Bibliografia

## Sarrera

Eskuarteon duzun lan hau Donostiako Euskararen Udal Patronatuak 1999ko maiatzean deitu zuen "Donostiako euskararen historia ikertzeko beka"ra aurkeztu genuen "Donostiarrak eta euskara: XVI -XVIII mendeak" proiektuaren emaitza da. Deialdiak zioen moduan, "bekaren helburua Donostiako euskararen historia aztertzea da. Batez ere XVI, XVII eta XVIII mendeetako dagokiena".



Lan hau burutu ahal izateko hiru iturritik edan ditugu beharrezko datuak: agiritegi desberdinetan gordetzen diren dokumentuak lehenik, garaiko autoreek beren lanetan esandakoak bigarrenik, eta gaiaren inguruko bibliografia azkenik, izan dira iturri horiek. Hiru hauen emaria ez da, hala ere, maila berekoa gertatu, lana irakurtzen zoazen neurrian ikusiko duzunez.

Beharrezko datuak bildu ditugula esan dugu, baina ordea (eta zoritxarrez), hauek ez dira izan guk nahi izango genituzkeen adina. Lana egiterakoan, Donostiako historia aztertu duten hainbat ikertzailek topatu duten arazo berbera izan dugu guk ere, nola ez. Gauza jakina denez, Donostia ia erabat kiskali zen 1813ko sutean. Etxe batzuk zutik gelditu ziren, baina ez udal agiritegia. Bestela esan, herri jakin baten pasatako mendeetako historia aztertzeke oinarritzkoa izaten den udal agiririk ezin izan dugu arakatu, duela ia bi mende erre zirelako.

Gauzak honela, zeharkako dokumentuak aztertzerak beharturik ikusi genituen geure buruak. Hauetako

gehienak pleituak izan dira, elizakoak (Iruñeko Artxibo Diozesanokoak) nahiz zibilak (Tolosan dagoen Gipuzkoako Agiritegi Orokorrekoak), eta beste hainbat, gutxiengoa beti ere, paper ofizialak (testamentuak, botere-gutunak, ordain-agiriak...) eta bataio-liburuak izan dira. Honek, hemen aurkeztera gatozen lanaren izaera goitik behera baldintzatu du, espero zitekeen bezala.

Pleituak bitartez, garai bateko gizartearen antolamendua nolakoa zen jakitera iris gaitzke, baina ez da bide oztopo-gabea izaten. Azken finean, pleituak ez ziren egiten helburu horrekin, oso bestelako batekin baizik. Hori dela eta, hauetatik atera daitezkeen datuak, gehienetan, zeharkakoak dira, eta askotan hankamotz gelditzen da historialaria egoera baten berri eman nahi duenean. Hau da guri gertatu zaiguna.

Historia egiteak berezko duen arazo honi beste bat gehitu beharko genioke, gure aztergaiari zuzen-zuzenean dagokiona. Lanaren gaia euskararen historia genuen; baina kezka linguistikoak edo soziolinguistikoak historiaren joan-etorrian oso berandukoak dira eta, ondorioz, honen inguruko informazioa oso urria.

### LANAREN EGITURA

Aurkitu ditugun oztopoak aipatuta, gatozen lanaren egituraz hitz bi esatera. Bildu ditugun datuak honela egituratu ditugu:

**L**ehen atalean, mugarri ditugun mendeetan atzera egingo dugu, Donostia sortu zen garairaino. Zein eragin izan zuten [gaskoiek](#) herriaren sorreran? Zein hizkuntza hitz egiten zen garai hartan? Frogatuko dugun moduan, herriaren historiaren lehen mendeen nondik norakoak ezagutzea oso garrantzitsu izango da aztertu dugun garaiko hainbat datu linguistiko modu egokian interpretatu ahal izateko.

**B**igarren atalean, [pleituetatik](#) atera ditugun datuak azaldu eta aztertuko ditugu, hiru azpisail desberdinetan banaturik: donostiarrak mezak euskaraz izan zitezten egin zituzten eskaerak (berez ez ziren eskaera zuzenak izaten, elizarekin zituzten arazoaren artean aipatzen zutenetako bat baizik), pleituetako frogantzak jasotzera bidaltzen ziren hartzaileen inguruko kontuak, eta euskaraz idatzirik aurkitu ditugun pasarteak.

**H**irugarren eta azkenean, datu horiek guztiak oinarritzat hartuta, [XVIII. mende amaierako gizarte donostiarraren euskarak bizi zuen egoeraren zertzelada batzuk](#) eskaintzen saiatuko gara, bere xumean aurrerantzean egingo diren lan sakonagoen oinarri izan daitekeena.

Lanari eskaini diogun sarrera hau ixteko, puntuok oinarritzat ikuspegi historikoa hartuz aztertu ditugula esan behar dugu. Irizpide filologikoa, zalantzaren bat sor zezaketen datuak argitzeko baliagarria izan denean soilik baliatu dugu. Interes filologiko hutsa duten datuak lan hauen helburuetatik kanpo zeudela iruditu zaigu, eta horrexegatik beste batean aztertzeko utzi ditugu.

Amaitzeko, gauza bat besterik esatea ez zaigu gelditzen: ez dakigu lanaren mugatuak atzetik duen saioaren neurria emango ote duen... baina tira, hori irakurleak iritzi beharko duen gauza da.

## Gaskoiak eta Donostia

El asunto de los gascones en Guipúzcoa –la inmigración de aquellas gentes al costalde guipuzcoano que tanta transcendencia tuvo en la vida institucional del país: a su influencia debe atribuirse la fundación de la villa de San Sebastián, la primera en la provincia- es tema sobre el cual hay abundante bibliografía.

(BANÚS Y AGUIRRE, 1991:561)

Hitz hauekin ematen dio hasiera Banús y Aguirre jaunak “Gascones en el costalde de Guipúzcoa” izeneko bere artikuluari. Gure helburua ez da aipatu artikuluan proposatzen duen berreraikitze historikoa eztabaidatzea, Donostialdean gaskoiak izateak ekarri zituen ondorio linguistikoek hainbat datu eskaintzea baizik. “Zergatik etorri ziren [\[gaskoiak\]](#)” izendatzen duen atalean garatzen duen bere hipotesia ontzat emango dugu hemendik aurrerakoan. Dena dela, ondorio linguistikoak aztertzeke ez da hain garrantzitsua inmigrazioaren zergatiak ezagutzea, inmigrazioa izan zela jakitea baizik. Horrexegatik ez diogu azterbide honi jarraituko, guri dagokigunari baizik.

XI mendean hona etorritako gaskoiek zein hizkuntza erabiltzen zuten? Hau izango da gure abiapuntua. Erantzuna Banús y Aguirrek berak ematen digu (1991:562-563):



Que tuvo resultado positivo esta política de atracción de inmigrantes a la nueva villa de San Sebastián lo demuestra esta mancha gascona que hasta hace bien poco se ha mantenido viva – gascoparlante– y que ha dejado como testimonio fehaciente de su colonización un sin fin de topónimos de clara raíz gascona.

Toponimia ez ezik, bestelako aztarna pisuzkoagoak ere ekartzen ditu bere lanean: dokumentazioan gelditu diren (ziren) hainbat gaskoizko testu, Camino historialariak hiriko “Libro becerro”an aipatzen dituenak, edo, ahozkotasanaren bidetik, Juan Ignacio de

Gamónen Noticias históricas de Rentería-n kontatzen zaizkigunak esaterako. Eragina, dirudienez, oso berandu arte mantendu zen (1991:563)

Don Fermín Iturrioz, en su libro Pasajes, Resumen Histórico, recientemente editado transcribe frases de conversación y fragmentos de canciones recogidas de labios de personas que han vivido hasta fecha tan reciente como es el año 1918.

Iturriozek eskaintzen dituen datuak oso interesgarriak dira soziolinguistikaren ikuspegitik, hizkuntza desberdinen arteko nahasketa garbia azaltzen baitute. Adibideen artean bat nabarmentzekotan, Edivigis Trecet andereak hiru neskei irakatsi zien gabon-kanta aipatu nahi genuke. Argitaratua dagoen arren, eta aztergai dugun garaian ez dagokiola jakinda, bere lanean ematen duen bertsoa hau hona ekartzea oso interesgarria iruditzen zaigu, aurrerago landuko diren bi punturekin harremana duelako: gabon-kantekin batetik, eta bertso barneko hizkuntza nahastearekin bestetik (Iturrioz, 1952: 12):

Aitona Ixidro  
Elusu belt tort,  
Que contentico estagua,  
Pixatasun lo.  
Aita arotza arotza  
Que le ville bortsou,  
Para que se dorma le niñ con Vou.  
Le niñ ploraue,  
S. José le dit,  
Aguinta chin et pisque  
Que le ville granit.

Banús y Aguirrek ematen dituen datuei 1951an Cirauquik BAP aldizkarian argitaratu zuen oharra gehitu beharko genieke. Honetan 1627. urteko Donostia eta Errenteriako udalen arteko pleitu batean, errenteriar lekuko batzuen esanak jasotzen ditu Cirauquik, ikuspegi berria ekartzen ez duten arren, guk aztertu dugun garaian Donostiako egoera nolakoa zen

jakiten lagunduko digutenak (1951:100):

Es el primero Pedro de Lizarraga, marinero de 36 años, vecino del lugar del Pasaje de la jurisdicción de San Sebastián, y dice que los pobladores della fueron gascones de Francia y que la lengua gascona dura y se habla al presente vulgarmente en la dicha villa de San Sebastián y en el dicho lugar del Pasaje donde es el testigo de la dicha jurisdicción de la dicha villa, y que el no habla gascón en la dicha villa, ni la sabe, no es de los naturales de la dicha villa, porque su lengua vulgar y de nacimiento de los naturales es gascona, como en Rentería y demás lugares de la provincia es el Vascongado cantábrico.

Gavelek ere aztertu zuen gaskoien presentzia gure lurraldetan. Berea da hizkuntzen arteko harremana zuzenean eta, bere laburrean, sakontasun handienaz egindako aipamena (1918:76-77):

Nous ne sommes pas forcés, d'ailleurs, de supposer, pour interpréter ce texte -1611ko pleitua-, que tout Saint-Sébastien parlât alors gascon: il suffit de supposer qu'une partie de la population pratiquait encore cette langue. Il est certain en effet que dès la fin du XVIe siècle au plus tard, le basque était d'un usage courant dans la future capitale de Guipúzcoa...

En somme, Saint-Sébastien devait être alors une localité trilingue: le basque et le gascon y étaient employés comme langue vulgaire, sans doute par des parties différentes de la population, et le castillain y était employé comme langue officielle, et aussi sans doute comme seconde langue, par la partie la plus instruite de la population.

Egia bada Donostiako lehen biztanleak gaskoiak (eta gaskoiak bakarrik) izan zirela eta beren hizkuntza propioa ekarri zutela beraiekin, gure lanaren muina osatuko luketen bi galdera sortu zaizkigu:

- ✍ Noiz sartu zen euskara Donostian?
- ✍ Nola sartu zen euskara Donostian?

Bildu ditugun datuei gainbegiratu azkar bat emanez, emango dugun erantzuna garbia da... benetan, galdera hauen erantzuna ez delako. Ez dugu gaskoiaren aipamenik egiten duen dokumenturik aurkitu, beraz ezinezkoa zaigu bi galdera hauek azalerraten duten arazoari inondik heltzea.

Dokumentu bakar batean aurkitu dugu gaskoiekiko harremana izan dezakeen datua. 1782ko pleitu matrimonial batean, Chipre(s) deitura agertzen da, Errenteriako Manuela Antonia de Chipres hain zuzen ere (mutila pasaiatarra da). Banús y Aguirrek bere artikuluan toponimia eta antroponimia gaskoiaren berri ematen duenean, agertzen den deituretako bat hau da. Baina gure dokumentuan, mutilak neskari bidalitako gutunetan euskara eta gaztelera azaltzen dira, eta ez gaskoia. Era berean, Iruñetik hartzaile euskalduna bidaltzen dute pleitu honetako frogantzak jasotzera. Gaskoiaren zantzu bakarra antroponimikoa da, beraz.

Bestalde, hainbat dokumentutan lekuko frantsesak ageri dira. Hauek ordea, esku artean dugun arazoari irtenbidea emateko ez dira egokiak, berez Frantzian jaioak baitira. Guri interesatzen zaizkigunak behiala hona etorritakoen oinordekoak dira, hemen jaio eta arbasoen hizkuntza gorde bide zutenak.

Antzeko iritzi du Cirauquik ia mende eta erdi lehenago ospatu zen pleituaren inguruko egoeraz (1951: 100):

Me han llamado la atención las declaraciones de tres testigos renterianos acerca de la extensión que entonces tenía la lengua gascona en San Sebastián. No es que el hecho en sí venga a decirnos nada nuevo, ni que hayamos de conceder mucho crédito a estas posiciones testificales que, dirigidas por Rentería, tienden indudablemente a contrarrestar los méritos de carácter patriótico que para su mejor defensa alegaba San Sebastián [Pasaiaiko portuaren jurisdikzioa zegoen jokoan].

Era berean, (hurrengo atalean sakonki mintzatuko gara auzi honetaz), euskararen auzia agertzen duten lehen dokumentuetan (1560, 1602), euskara eta gaztelera besterik ez dira aipatzen. Are gehiago, hiribilduko apaizak, bertako seme izateagatik, euskara ona darabilte argudiatuko dute elizako ordezkariak.

Gauzak honela, hemendik aurrera aurkeztuko ditugun datu guztiak euskara eta gaztelaren arteko harremana aztertzeko baliatuko ditugu.

# Donostiarrak, eliza eta euskara

Donostiarrak, eliza eta euskara

## HANDIK ETA HEMENDIK

Euskara donostiarren hizkuntza zela froga dezaketean frogatzen den fidagarrikeria ez dugun arren, neurri batean euskara erabiltzen zutela eta ez hori bakarrik, euskara eskatu egiten zutela frogatu dezakegu. Horretarako, iturburu desberdinetatik hartu ditugun datuak hemen azalduko ditugu. Beraz, atal honetan frogatuko duguna zera da, donostiarrek beren eguneroko bizitzarako euskara erabiltzen zutela XVI. mendearan eta XVIII. mendeen artean.

Nahiz eta horrela planteatu, esan behar dugu aurkitu duguna erreferentziak besterik ez direla, ez dugu aurkitu nahi izango genukeen altxorra. Donostiarrek euskara erabiltzen zutela antzeman dezakegu 1560. eta 1602. urteko epaiketa batzuetan agertzen diren lekuko batzuen esanengatik. Baina gure iturburuak ez dira horiek bakarrik izan, beste zenbait izan ditugu eta aurrerago, mendeen barrera goazen heinean, azaltzen joango garenak.

Atal honetan denboran barrera ibiliko gara eta ez diogu iturburuari garrantzia emango lan honen beste zenbait ataletan agertuko den bezala, hemen azterketa diakroniko bat egingo dugu honela argiago ikus dezagun zein izan den euskararen bilakaera denboraren joan-etorrian. Beraz, hasi egingo gara.

Ezer baino lehen komenigarria iruditzen zaigu Donostiak zuen itxura zein zen azaltzea. Donostia bi zati nagusitan banatuta zegoen, banaketa hori fisikoa zen nagusiki nahiz eta maila sozialeko banaketa ere egon. Hala ere, banaketa fisikoa garrantzitsuena da. Donostia harresiz inguratua zegoen Errege Katolikoek horretarako baimena eman zutenetik, Donostiaren 1489. urteko erreketeta eta gero. Baina ez horregatik bakarrik, baizik eta Frantziaren mugan dagoelako eta momentu horietan Espainia eta Frantziaren arteko harremanak ez zeuden oso egoera onean (Aguirre Gandarias, 1994: 29):

En el verano del mismo año 98 (1498 ( agosto, 27, Valladolid), el bachiller Elduain, una vez más alcalde de la villa, expuso a la corte que Donostia, por hallarse muy fronteriza, en particular de cara a Francia tenía hecha una contracerca para su defensa, con lo que se precavía del posible peligro



Harresi horiek, beraz, Donostia bi zatitan banatzen zuten, batetik harresien barruan zegoen hiria eta bestetik kanpoan gelditzen ziren auzoak, horien artean Santa Catalina auzoa, San Martin auzoa, San Sebastian el Altigu auzoa, Igeldo auzoa, eta beranduago sortu ziren Altzako auzoa eta Pasaia auzoa. Esan bezala, Donostia bi zatitan banatuta dago. Eta banaketa fisiko honek ere elizen banaketa ekartzen du nola ez.

Donostia barruan, hau da, harresien barnean geratzen den hiri zati horretan, bi eliza nagusi daude, Santa Maria eta San Bizente. Horiez gain, badaude beste zenbait komentua eta kaperak, horiek ditugu: San Telmoko dominikoen komentua, Santa Anako basilika eta Urgulleko Santa Cruz de la Motako kaperak. Harresietatik kanpo, berriz, beste zenbait ermita eta komentua ditugu. Horiek dira: Santa Catalinako basilika eta bere ondoan San Antonio Abaden ospitalea, San Martineko ospitaleko kaperak, San Bartolomeko agustinen komentua eta San Franciscoko dominikoen komentua, Altzako San Martzial parrokiak, San Sebastian el Antiguoko parrokiak, Pasaia San Pedro parrokiak eta Igeldoko San Pedro parrokiak. Eliza eta parrokiak hauek ( kanpoan daudenak) harresien barrualdean dauden Santa Maria eta San Bizenteko elizen menpe zeuden, eta beraz, beraiei eman behar dizkiete eliztarrek egiten dituzten operak, eskaintza eta abarrak. Esate baterako, San Sebastian el Antigu eta Altzako San Martzial elizak Santa Mariaren menpekoak dira eta parrokiak hauetan egiten ziren operak eta abar Santa Mariari eman behar dizkieten eta honek banatu egiten zituen berak nahi zuen moduan. Gauza bera gertatzen zen Pasaia San Pedro parrokiak eta Igeldo izeneko tokiko parrokiarekin. Hauek San Bizenterekin menpean zeuden eta beraz, bertara eramanez behar zituzten eliza horietan egiten ziren eskaintza eta operak guztiak.

Egoera nolakoa den azaldu eta gero geroz bada, lehen aipatu ditugun bi epaiketa horiek aztertzea .

Lehenik eta behin esan behar dugu, donostiarrek 1560. urtean euskara erabiltzen zutela beren eguneroko bizitza arruntean. Hori garbi agertzen da, urte horretan bertan eta aurrekoetan egin zen epaiketa batean. Epaiketa hori 1559. urtean hasi zen 2 eta bertan



Santa Maria eta San Bizenteko apaizek harresietatik kanpo bizi ziren zenbait herritar salatu egiten dituzte aipatu eliza horietan ez dutelako meza entzuten jai egun berezietan, hala nola, pazkoa, eta abar. Epaiaketaren ebazpena salaketa egin zutenen aldekoa da, hau da, Santa Maria eta San Bizenteko elizako apaizen aldekoa. Epaiketa 1559an bukatu zen baina herritarrek errekurritu egin zuten eta 1560rarte luzatu zen. nahiz eta luzaketa hau egon epaiaren ebazpena bera izan zen.

Epaiketan argudio asko atera ziren eta donostiarren bizi moduari buruzko xehetasun asko ere agertu ziren. Baina, hala ere, guri interesatzen zaiguna zera da, demandatuek harresi barruko elizetara meza ez entzutera joateko arrazoietakoa bat. Arrazoi hori zen, bertako apaizek mezak erromantzez ematen zituztela eta beraiek ez zutela oso ondo ezagutzen gaztelera eta gainera Santa Catalinako basilikan euskaraz ematen zirela mezak eta horregatik joaten ziren bertara meza entzutera, ez bakarrik jai egunetan baizik eta egunero. Epaietatik atera ditugun zati hauek lekukoen esanak dira, bai apaizek aurkeztutako lekukoak bai herritarrek aurkeztutako lekukoak:

en la dicha iglesia sirve solo (... ( lo que no se hacia en las dichas iglesias parroquiales (...) que los que alli se untan a oir los oficios que son los arriba nombrados (...) son vascongados y muy pocos de ellos saben la lengua castellana y en dicha iglesia las publican las fiestas en su vulgar, y predicán en su vulgar vascongado lo que no hacia ni hacen las otras parroquiales.

Lekuko honek dioenaren arabera, Donostiarrek euskara erabiltzen zuten. Are gehiago, eskumikatuak izateko arriskua zuten herritar hauek, eta hala ere, bere horretan jarraitzen zuten euskaraz ematen ziren mezetara joateko intenzioan.

Hala ere, apaizek salaketa horri aurre egiten diote. Horretarako beren lekukoak aurkezten dituzte. Hauek zera diote: apaizak bertakoak direla eta ondorioz euskara ondo ezagutzen dutela:

dice y proba entiendo que entre los dichos vicarios y beneficiados y clérigos de las dichas iglesias parroquiales hay muchos de ellos vascongados y entienden y saben hablar la lengua vascongada y de buen vascuence de la misma tierra para predicar y hacen plegarias y oír de penitencia y administrar los dichos sacramentos eclesiásticos a los dichos parroquianos y otras cosas que convienen y esto es la verdad.

Testu zati honek argi eta garbi uzten du zein garrantzia daukan euskarak Donostian. Are gehiago, apaizak herrikoak direla dio lekuko honek eta herrikoa izategatik euskara ona eta garbia egiten duela dio:

hay muchos de ellos vascongados y entienden y saben hablar la lengua vascongada y de buen vascuence de la misma tierra

Esan bezala, epaiketa 1559an bukatu zen ebazpenak apaizei arrazoia ematen zuelarik. Beraz, herritarrek jai egunetan meza harresien barruko elizetan entzun behar zuten eta ez Santa Catalinako basilikan. Ebazpena latinez ematen da.

Hala ere, demandatuak errekurtsua aurkeztu zuten, eta berriro ere epaiketa hasi zen. Bertan euskararen garrantzia nabarmentzen jarraitzen da. Demandatuak beren lekukoak ekartzen dituzten eta lekuko horiek, euskarak demandatuen bizitzan zuen garrantzia azpimarratu behar zuten:

los arriba nombrados son vascongados y muy pocos de ellos saben la lengua castellana y en dicha iglesia les publican las fiestas en su vulgar vascongado lo que no hacían ni hacen en las dichas parroquiales y así es verdad

Horietaz gain, beste aipamen batzuk ditugu:

- ⌘ son todos vascongados que no entienden plenamente y en las dichas iglesias parroquiales
- ⌘ los vascongados no entienden la lengua castellana ( f 55)
- ⌘ son vascongados y no entienden la lengua castellana ( f 57)
- ⌘ ...el evangelio y plegarias en lengua vascongadas ( f 62)
- ⌘ el evangelio y plegarias en vascuence ( f 64)
- ⌘ son gente vascongada y muy pocos de ellos entienden la lengua castellana... ( f 66)

Testu zati hauetatik argi eta garbi ondorizta dezakegu, apaiz hauek donostiarrak direla eta beren hizkuntza euskara dela eta ez erromantzea.

Hala ere, apaizak bere horretan jarraitu zuten eta Santa Catalinako basilikan kanpotar bat



zegoela aldarrikatu zuten. Atzerritar hau donostia kanpoakoa da, Jimeno Juriok (1998: 228) dioenez, nafarra da eta euskalduna. Dirudienez, donostiarra ez zen jendea kanpotartzat jotzen zuten eta bere euskara ez zen bertakoena baino hobea, aitzitik, trakeztat jotzen dute:

donde no habido no hay monasterio ni fraile ni religioso alguno hasta ahora que han pretendido poner un clérigo con una cruz blanca el cual es extranjero y no sabe hablar la lengua vascongada a lo menos de la misma tierra y esto es verdad

Epaiketa, azkenean 1562ko irailaren 21ean bukatzen da Zaragozako metropolitanoaren ebazpenarekin. Ebazpen honek apaizei ematen die arrazoia, beraz, herritarrek Santa Maria eta San Bizenten entzun behar dituzte jai egunetako eta bestelako mezak.

Nahiz eta 1562an ebazpen hori eman, arazoa ez da konpontzen eta donostiarrek bere horretan jarraitzen dute. Mezak Santa Catalinako elizan entzuten dituzte. Ondorioz, 1597an4 harresi barruko apaizek harresietatik kanpo bizi diren zenbait herritar salatu egiten dituzte arazo berberarengatik: herritar hauek ez dituzte jai egunetako mezak harresi barruko elizetan entzuten eta gainera opari eta eskaintza guztiak Santa Catalinako basilikan egiten dituzte.

Salaketa jarri eta gero, Iruñeko eskribau batek salatuei salaketaren berri eman zien. Horretarako, mezen ofertorioak aprobetxatzen zituen edo bestela, herritarrek hilerrian batuta daudenean egin zuen. azalpenak erromantzez nahiz euskaraz egin zituen berak aipatzen duen bezala:

en la iglesia o basílica de Santa Catalina que es de la orden de San Juan de Jerusalem extramuros de la noble e leal villa de San Sebastián día domingo a veinte y dos días del mes de septiembre de mil quinientos y sesenta y seis años del nacimiento el prior ----- y cabildo de la dicha villa yo Joannes de Miramón como decano del real notario(...) por autoridad (...) en toda la diócesis y obispado de Pamplona inter misarum solemnía estando ajuntada mucha gente en la dicha iglesia ley y publiqué a alta e intibrible voz los sobre dichos executoriales en que los y su tenor notifique y di a entender en la mejor forma y manera que pude en lengua vascongada y romance a Joan Perez de Iturain

Epaiketa honetan, aurrekoan bezala, lekukoak daude. Beraien lana alde batekoen zein bestekoen argudioak egiaztatzea da. Horregatik, ekintza beraren bi bertsio aurki ditzakegu lekukoaren artean, segun eta zein aldetakoak diren. Hau kontutan hartuta ikus dezagun demandatuak direnen aldeko lekukoek zer esaten duten:

Y así mismo por que en las parroquiales todos los actos se hacen en lengua castellana y también sermones y la confesión general y las plegarias y mis partes no entienden la dicha lengua y así acuden a la dicha iglesia de Santa Catalina o a otras partes donde se hacen los dichos actos en vascuence

Todos los beneficiados y vicarios de las parroquias de la dicha villa de San Sebastián son personas mal vascongadas, los cuales y ninguno de ellos, de tiempo inmemorial a esta parte nunca han predicado en vascuence en las dichas parroquias sino en la lengua vulgar castellana ni los demás actos parroquiales que son la confesión general plegarias y señalamiento de fiestas ayunos y las demás cosas concernientes a los vicarios y curas de almas, la cual dicha lengua castellana ninguno de ellos la entiende hablando generalmente"

Bi aipamen hauetan argi gelditzen den puntua zera da, salatutako hirurogei eta sei gizonezkoentzat euskara oso garrantzitsua dela. Zergatik esaten dugu hau?. Beraiek euskara edozeren aurretik jartzen dutelako. Beraiek, beraz, euskaldunak dira.

Beste aldetik, apaizen aldeko lekukoak ditugu. Bertan suposa daitekeen bezala, lekuko hauek aurrekoen kontrakoa esaten dute:

que en las dichas iglesias parroquiales los vicarios y todos saben muy bien la lengua vascongada y en ella declaran el evangelio, saben las plegarias y lo demás necesario y administran los sacramentos en especial el de la eucaristía y extrema unción y matrimonio de manera que todos lo entiendan y aplican conforme a las personas con quien tratan como ello es así verdad y lo dirán los testigos y es publico y notorio

En que en las dichas iglesias parroquiales los vicarios y todos saben muy bien la lengua vascongada y en ella declaran el evangelio y saben las plegarias y lo demás necesario y administran sacramentos en especial el de la eucaristía extrema unción y matrimonio de manera que todos lo entiendan y aplicándose

conforme a las personas con quien tratan como ello es así verdad y lo dirán los testigos y es publico y notorio

Bi testigantza hauek ez dute zalantza izpirik uzten, apaizak euskaldunak ziren lekuko hauen arabera, eta meza euskaraz emateko gai ziren. Ez bakarrik meza, apaiz batek egin beharreko lan guztiak euskaraz egiteko gai ziren:

en ella declaran el evangelio, saben las plegarias y lo demás necesario y administran los sacramentos en especial el de la eucaristía y extrema unción y matrimonio

Eta hori gutxi balitz, euskalduna den eta ez den pertsonaren artean desberdintasunak egiten dituzte:

de manera que todos lo entiendan y aplicándose conforme a las personas con quien tratan

Beraz, honek guztiak ondorio batetara zuzentzen gaitu: Donostian, harresien barnean zein kanpoan, jende euskalduna eta jende ez euskalduna bizi zen. Gainera, apaizek bi jende mota horien artean desberdintasunak egiten zituzten hizkuntzaren erabilerari dagokionean, aipatu bi zita horiek argi eta garbi erakusten duten bezala.

Jimeno Jurioaren arabera, pleituak geldiene bat sufritu zuen Donostian egon zen gaixotasun batengatik:

El pleito sufrió una detención, debida a la "enfermedad contagiosa que en la villa ha habido

Prozesua berriro hasi zenean, apaizek galdera zerrenda berri bat prestatu zuten demadatuen aldeko lekukoei egiteko, bertako laugarren galderan guri dagokigun datuak aurki ditzakegu:

A la cuarta pregunta dijo este testigo que ¿ muchos años? a esta parte saben y ha visto que los dichos beneficiados y cabildo como naturales de la villa saben muy bien la lengua vascongada y que todos, o, los mas de ellos saben en las dichas parroquias de Santa María y San Vicente administran los sacramentos de la comunión matrimonial y la extrema unción en la dicha lengua vascongada a todas las personas que no entienden la lengua castellana como todo ello es publico y notorio en la dicha villa y fuera de ella (...) que el maestro don Pedro de Albizua vicario de la dicha parroquia de san Vicente que en ella ( ) suele predicar el santo evangelio y echar la plegaria en la dicha lengua vascongada

A la cuarta pregunta dijo este testigo que sabe que los dichos beneficiados saben todos ellos y hablan muy bien la lengua vascongada de suerte y manera que en todo su tiempo les a visto administrar los sacramentos de la santa madre iglesia como es la comunión y matrimonio y extrema unción en la dicha lengua vascongada a dichas las personas que saben que no entienden la lengua castellana y en particular a los dichos Domingo de Alcaizaga y sus consortes y que bien así muchos domingos y fiestas ha visto este testigo que el maestro Don Pedro de Albizua vicario de la dicha parroquia de San Vicente que ha tenido y tiene particular cuidado cuando los suso dichos o algunos foráneos acuden a la dicha iglesia de predicar el santo evangelio h echar la plegaria en lengua vascongada de manera que la pueden entender y comprender muy bien y esto es lo que sabe y responde a esta pregunta.

A la cuarta pregunta dijo este testigo que sabe que los vicarios y beneficiados de ambas las dichas parroquias saben muy bien la lengua vascongada como hijos naturales de la dicha villa a los cuales ha visto este testigo que administran los sacramentos de la santa madre iglesia como es la extrema unción, comunión y matrimonio en la dicha lengua vascongada a todas las personas así de la dicha villa como de fuera de ella que saben que no entienden la lengua castellana y que en particular muchos días de domingos y fiestas ha visto este testigo que el maestro Don Pedro de Albizua vicario de San Vicente a predicado y echado las plegarias en la dicha lengua vascongada y en particular teniendo noticia que hay en la dicha iglesia algunos de los que vienen del contorno de Santa Catalina y de otras partes.

Aipamen hauetatik zenbait ondorio atera daitezke, besteak beste honako hauek:

Apaizak donostiarrak dira eta horregatik euskaraz dakite:

sabe que los vicarios y beneficiados de ambas las dichas parroquias saben muy bien la lengua vascongada como hijos naturales de la dicha villa

Gainera, lehe aipatu dugun bezala, meza eta apaiz izateak eskatzen dituen lan guztiak euskaraz emateko gai dira apaiz hauek:

a los cuales ha visto este testigo que administran los sacramentos de la santa madre iglesia como es la extrema unci ón, comuni ón y matrimonio en la dicha lengua vascongada

Hau gutxi balitz, meza hauetara, ez da bakarrik donostiako jendea joaten, kanpokoak ere etortzen dira. Hala ere, kuriositate bat ikus daiteke hemen:

en la dicha lengua vascongada a todas las personas así de la dicha villa como de fuera de ella que saben que no entienden la lengua castellana y que en particular muchos días de domingos y fiestas ha visto este testigo que el maestro Don Pedro de Albizua vicario de San Vicente a predicado y echado las plegarias en la dicha lengua vascongada y en particular teniendo noticia que hay en la dicha iglesia algunos de los que vienen del contorno de Santa Catalina y de otras partes

Y en particular teniendo noticia que hay en la dicha iglesia alguna de los que vienen del entorno de Santa Catalina y de otras partes"

...dioen zati horretatik zenbait puntu ondoriozta daitezke: Batetik, Santa Catalinako inguruetan euskaldunak zeudela eta beraiek agertzen zirenean mezak euskaraz izaten zirela. Beste alde batetik ere, ondoriozta dezakegu, kanpotik etortzen den edozein mezatarra joaten denean euskarara jotzen zutela. Beraz, horrek esan nahi du Donostia inguruan euskaldun asko zegoela.

Epaiketa 1599an bukatu zen. Bertan eman zen ebazpena salaketa jarri zuten apaizen aldekoa izan zen. Hala ere, demandatuek errekurtsio bat jarri zuten eta epaiketa hiru urtez luzatu egin zen. Bukaeran epaia berbera izan zen, apaizek arrazoa zuten.

Beraz, bi epaiketa hauetatik atera ditzakegun ondorioak honela laburbildu daitezke:

Alde batetik, apaizak donostiarrak ziren neurrian euskara ezagutzen zuten, bertako semeak zirelako. Bigarrenik, esan dezakegu, Donostian bi hizkuntz komunitate bizi zirela, nagusiki, batetik, euskaldunak zirenak eta bestetik, erromantzea besterik mintzatzen zutenak. Euskaldunak zirenak, harresien barnean zein kanpoan bizi ziren.

Beste aldetik, kontutan hartu behar ditugu, harresien barnean mezak erromantzez ematen zirela nagusiki, nahiz eta batzuetan zein jende zegoen kontutan hartuta meza horiek euskaraz ematen ziren. Horretaz gain, harresietatik kanpo zegoen Santa Catalinako basilikan euskaraz ematen ziren mezak igandetan nahiz jai egun berezietan: pazkoa, Ama Birjinaren egunean eta abar.

Datu hauek kontutan hartuta, eta Donostia kanpoaldean auzo bat baino gehiago dagoela kontutan izanik, zeinek esan dezake beste auzo horietako elizetan mezak euskaraz ematen ez zirenik?. Egia esan, hipotesi hau ezin dugu konfirmatu horretarako froga moduan erabili ditzakegun datuak ez ditugulako. Hala ere, jaso ditugun datu hauek hori pentsatzera eraman gaitzakete.

Orain arte XVI. mendeari arreta berezia eman badiogu ere, donostiarren, elizaren eta euskararen arteko hartu emanak hurrengo mendeetan barna ere aurki ditzakegu, hala ere.

Baina, aurrera baino lehen, elizaren historian eragin handia izan duen gertakizun bati buruz hitz egin behar dugu. Gertakizun hau Trentoko Kontzilioa da. Kontzilioa 1545 eta 1663. urteen artean egin zen Italiako Trento hirian, eta bertan hartu ziren erabakiek eragin handia izan zuten eliza katolikoaren senean, bai eta garai hartako gizartean ere. Erreforma horiek Europa guztira zabaldu ziren eta nola ez Donostiara ere iritsi ziren (Tellechea Idigoras, 1972a: 15.orr.):

En la historia espiritual europea, el siglo XVI es uno de los que presenta mayores atractivos, por su vitalidad, por la tremenda escisión religiosa operada en la Cristiandad y por la reacción que en ésta se dio que cristalizó en el Concilio de Trento. Esta ebullición espiritual llegó hasta los últimos rincones: San Sebastian no quedó al margen de la misma.

Esan bezala, Trentoko Kontzilioak erreforma handiak ekarri zituen. Horien artean guretzat garrantzitsua izan daiteken bat: Kontzilioak herri hizkuntzei garrantzi gehiago emateko

agintzen du besteak beste. Era berean, Kontzilioak katekesiaren garrantzia azpimarratzen du, beste gauza askoren artean ( Tellechea Idigoras, 1972a: 39):

La base de toda reforma era la instrucción del pueblo cristiano y el medio para ello era la catequesis

Gauzak honela eta kontutan hartuz Trentoko Kontzilioa Donostiaraino iritsi zela, gatozen bada Kontzilioak Donostian izan zuen eragina ikustera.

Esan bezala, katekesiak garrantzia zeukan elizaren senean, eta nola ez Donostian ere bai. Horren adierazle aurkitu dugu Donostiara Lope de Alquiza doktoreak egindako bisitan, 1564. urteko azaroaren 10an. Alquiza doktorea Don Diego Ramírez Sedeño de Fuenleal Iruñeko gotzainaren bisitaria eta erreformatzailea da eta gotzainaren izenean etortzen da Donostiara bertako egoeraren berri emateko, bai eta erreforma berrien berri emateko. Erreforma berri horien artean katekesiari dagokiona dago ( Tellechea Idigoras, 1972a: 39):

Se reiteran los mandatos de anteriores visitas, pero se añaden muchos nuevos de mayor envergadura y alcance: subyace todo un programa de reforma. La base de toda reforma era instrucción del pueblo cristiano y el medio para ello era la catequesis: en tal sentido se manda que los domingos por la tarde se explique la Doctrina cristiana y se aprenda de memoria.

Lope de Alquizaren mandatuak maisuei ere dagokie .( Tellechea Idigoras, 1972a39):

Este afán de control de la instrucción alcanza a los maestros: tanto ellos como los libros en que enseñan han de ser conformes a la doctrina de la Iglesia

Hala ere, nahiz eta katekesiak horrenbesteko garrantzia izan, Donostiako apaizek ez diote behar adinako garrantzia ematen eta gerora etorriko diren bisitari askok eta askok katekesiaren beharrari erreparatuko diote. Bisitari horien artean ditugu: Bernardo de Rojas y Sandoval gotzainaren beraren bisita (1589); Bartolomé Daza lizentziatuarena (1604); Antonio Venegas y Figueroa gotzainaren berarena (1610),... Hauek guztiak katekesia ez dela erakusten salatu egiten dute. Dirudienez, ez erakustearen arrazoia deskuidu bat da honako aipamen honetan ikus daitekeen legez (Tellechea Idigoras, 1972a: 66):

El "descuido grande" denunciado una vez más, es el de no declarar el evangelio y la doctrina cristiana.

Hala ere, arazoa ez da konpontzen eta berriro ere doktrina erakutsi behar dela gogorarazten die 1646. urtean Pedro Sarabia y Mendoza doktoreak (Tellechea Idigoras, 1972a: 73):

A los párrocos, vicarios y rectores de la iglesia se les recuerda la obligación de explicar el evangelio los domingos, como lo mandaban Trento y las Constituciones sinodales, y así mismo el deber de instruir al pueblo cristiano; a este efecto manda que un día por semana, después de vísperas, enseñen públicamente la doctrina cristiana

Gure gai nagusira bueltatuz, aurrerago esan dugu Trentoko Kontzilioak herri hizkuntzei garrantzia ematen diola, horren adierazle Katalunian eman zen gertaera hau:

En este devenir moral, la predicación estuvo sujeta evidentemente a diversas pautas de comportamiento y de acción que tuvieron su punto de partida en el uso del lenguaje materno. Es más, por prescripción tridentina se trataba de facilitar al maximo la comprensión del mensaje. Por eso las Constituciones sinodales de Urgell insistían en 1632 que la predicaciónse haga en lengua catalana.

Beraz, aipamen honek argi uzten du herri hizkuntzek duten garrantzia Trentoko Kontzilioa eta gero. Hala ere, guk ez dugu horrelako aipamenik aurkitu, salbu Iruñeko gotzaina den Antoni Manrique jaunak Zarautzen zegoelarik 1576. urtean semaneroari kristau doktrina euskaraz erakusteko esaten dionean, honela jendeak uler zezan jai egunetan.

que se enseñara la doctrina cristiana de manera que se entienda en bascuence los días de fiesta

Hau guztia, esan bezala Zarautzen esaten du baina argi gelditzen ez den kontua zera da, esan hori Zarautzerako bakarrik den ala bere elizbarruti guztirako?. Guk ez daukagu daturik konfirmatzeko esan hori elizbarruti guztirako den ala ez, baina ez da oso logikoa hori esatea elizbarrutiko herri batentzat bakarrik, kontutan hartuta Calahorrako elizbarrutiko gotzainak antzeko erabaki bat eman zuela euskalduna zen elizbarruti guztirako (Vergara Ciordia,1995:520):

### Idea que se repite en las zonas vascófonas de la diócesis de Calahorra.

Gauzak honela 1678ko martxoak 15ko data daukan eskutitz bat aurkitzen dugu. Eskutitz hau Jose Goñi Gaztambidek bildu zuen 1972. urtean argitaratutako artikulu batean. Bertan dioenaren arabera, katekesiari garrantzia handia ematen zitzaion XVII. mendean eta katekesi hori euskaraz nahiz gaztelera ematen ziren Iruñeko elizbarrutian (Goñi Gaztambide, 1972: 15):

Tal renacer (el del renacer catequístico en la diócesis de pamplona a raíz del Concilio Tridentino) comprendía la recomendación y urgencia de la instrucción catequística de los fieles, así como la edición de catecismo en castellano y vascuence. En el siglo XVII se renuevan tales mandatos con machacona insistencia, y a veces con matices nuevos.

Testu zati honetan esaten zaigunaren arabera, Trentoko Kontzilioaren ondorioz eta Iruñeko elizbarrutian euskaraz erakusten zen katekesia garrantzitsua da. Are gehiago, testu honek esaten duenaren arabera, euskaraz idazten diren katekesi liburuak egiteko eskatu eta gomendatzen da. Hori aurrera pauso handi bat suposatzen du. Hala ere, testu kateketiko horiek, egin baziren ere, ez baitakigu egin ziren edo ez, ez dira gaur egun arte iritsi. Honek galera handia suposatzen du, gaur egun arte gorde izan balira orduko euskararen ikerketa sakonago bat egiteko parada izango genukeelako, eta gure lan hau askoz ere aberasgarriago izango litzateke.

Hala eta guztiz ere, gotzainen eskaera hauek ez ziren guztiz betetzen Donostian (Goñi Gaztambide, 1972: 15):

A pesar de las repetidas instancias para que la catequesis se celebrara los domingos y días de fiesta, los curas se contentaban con explicar la doctrina cristiana a los niños durante la cuaresma.

Honen guztiaren frogagarri, hau da, Donostian garizuma garaian doktrina erakusten zenaren froga gisa dugu aita Francisco de Alesónek Iruñeko gotzainari idatzitako eskutitza (Goñi Gaztambide, 1972: 15-16):

La que agora se ofrece es dar cuenta a V.S.I. cómo según la costumbre introducida todas las cuaresmas, nos hallamos al presente ocupados en la explicación de las doctrinas así en este colegio de V.S Illma. como el las parroquias.

Hala ere, euskaraz erakusten denean jende asko biltzen dela dio aita Alesónek (1972: 16):

El concurso y moción de la gente es muy grande, particularmente a la explicación de la doctrina en vascuence, que la hace el padre Ignacio de Aguirre

Beraz, argi dago Donostian katekesiak garrantzi handia zeukala eta katekesia gaztelera erabili ezezik euskara erabiltzen zutela. Are gehiago, euskaraz erakusten zen katekesiak gaztelera ematen zenak baino jende gehiago erakartzen zuen, nahiz eta gaztelaniakoa ez atzean gelditu.

Idea honek gorago aipatutako ideia batetara bueltatzen gaitu: Donostian bi hizkuntz komunitate bizi dira gutxienez. Eta bi hizkuntz komunitateak elkarrekin bizi dira dirudienez, inolako arazorik gabe.

Baina eskutitz hau ez da euskararen inguruan aurkitu dugun bakarra XVII. mendean.

XVI. mende bukaeran eta XVII. mendean Donostian komentu berri bat sortzen da, Santa Teresako komentua hain zuzen ere. Komentu hori sortzeko hasieran arazoak egon baziren ere, XVII. mendean komentua sortzen da. Gertaera honen egileak Don Diego de Texada y Laguardia gotzaina eta bere administradorea zen Domingo de Hoa ditugu.

Komentua egiteko ideia aspalditik bazetorren ere, Texada y Laguardia gotzainaren garaia arte ez zen gauzatu. Gotzaina bera izan zen komentuaren egitasmoa aurrera ateratzeko indar gehien egin zuen pertsona.

Komentua Santa Ana basilika zegoen lekuan egingo zen, bertan zegoen basilikaren oinarriak aprobetxatuz. Komentua egiteko dirua Donostiako emakume aberats batek utzitakoa izango zen. Behin obrak hasi zirenean, gotzainak bere administradorea zen Domingo de Hoa Donostiara bidali zuen obrak gainbegiratzeko. Administradoreak eskutitzak bidaltzen zizkion gotzainari obren nondik norakoak azaltzeko. Eta gotzainak erantzun egiten zizkion bere ardurak eta abar azalduz.

Gotzainak zituen arduretako bat, komentuan biziko ziren mojak aurkitzea zen. Horretarako bere elizbarruti osoan begiratu zuen, eta ez bertan bakarrik baizik eta beste elizbarrutietan ere bilatu zituen. Azkenik, Tarazonatik lau moja ekarri zituen baina hala ere, arazoa ez zen konpondu. Euskaraz zekien mojarik ez zuen topatu, horregatik Domingo de Hoari laguntza eskatzen dio euskaraz dakien moja hori aurkitzeko, oso garrantzitsua baitzen euskaraz zekien moja bat komentua edukitzea, honela beste mojei itzultzaile moduan aritzeko.

Eskutitz horiek Donostiako Santa Teresako Komentuan daude beste zenbait paperekin batera. Guk ez dugu eskutitz horietara iristeko aukerarik izan, bertako mojek ez baitigute bertan sartzen utzi, klausurako mojak zirela esanez. Hala ere, eskutitz horien berri Luis Murugarrenek idatzitako "La Basilica donostiarra de Santa Ana y la fundación de las carmelitas" izenburua duen artikuluari esker izan dugu, horien berri ematen baitu. Eskutitzak (bat baino gehiago direlako) 1662 eta 1663. urteetakoak dira.

Artikulu horretan Murugarrenek esaten duenez, gotzainarentzat arazo handia zen euskaraz ez zekien mojarik ez topatzea (Murugarren, 1968:48):

El prelado entretanto se ocupaba en la elección de las monjas fundadoras. Advirtiendo la necesidad de que entre ellas hubiera quién conociera el vascuence, pensó en obtenerlas en el convento de Zumaya, fundado en 1609 por D<sup>o</sup> Francisco de Labayen para carmelitas descalzas, y escribe a Hoa: No es posible ajustar la fundación con dos fundadoras solas, y así Vm. confiera con esos señores por si hubieren algun reparo para que, pues de Zumaya no podemos sacar sino dos, disponga yo traer otras dos de otra parte y vamos ajustando la mata de modo que ocho días antes de Sta. Theresa estén las monjas en el convento para celebrar su fiesta. La cuidad, por consiguiente, también exigia que hablaran vascuence.

Eskutitza 1662ko uztailaren 1ko data dauka. Bertan argi uzten du euskaraz zekien mojarik egon behar zuela, eta Hoari esaten dio bertakoekin hitz egiteko ea arazorik duten moja guztiak euskaldunak ez izatearekin:

y así Vm. confiera con esos señores por si hubieren algun reparo para que, pues de Zumaya no podemos sacar sino dos, disponga yo traer otras dos de otra parte y vamos ajustando la mata

Hala ere, gotzainak ez du lortzen euskara dakien mojarik aurkitzea eta berriro ere Hoari bere arduren berri ematen dio 1663an idatzitako eskutitz batean (Murugarren, 1968:52):

Con el nuevo año (1663) crece la impaciencia del prelado: " Ya se va llegando la primavera y yo deseo verme en ella para que con eso logre el desseo de verme por allá (...) Una cosa he reparado y es que ninguna de nuestras fundadoras sabe vasquenze y parece que necesitaban de alguna que lo ablasse y entendiesse. digame Vm. su sentir en esto.

Eskutitz honen ondoren, Hoa administradoreak izen bat aipatzen du sor Ana de Ubillos. Moja hau euskalduna da eta Zumaiako komentuan dago. Hasieran, gotzainak ez dio kasurik egingo. Moja hau, komentuan obretan laguntzen ari den apaiz baten arreba da, eta apaiz horren bidez moja honen berri izaten du Hoa administrariak.

Azkenean, gotzainak zenbait lagunei laguntza eskatzen die Anamaria de Ubillos donostiara ekartzeko, eta lortu ere lortzen du (Murugarre, 1968:52):

Ohar bat egin beharrean gaude. Hartzaileen kontu honetan sakontzen hasi ginenean, honi erreparatu genion: agiritegian dauden dokumentuen aurkibidean, euskaraz idatzitako zerbait edo euskararen inguriko auziren bat dagoenean, hala esaten zaigu fitxetan ere. Baina hartzaileen kontu hau ez da inondik inora aipatzen. Ikus dezagun fitxa hauetako bat, lehen aipatu dugun dokumentuetako bati dagokiona:

María Teresa de Goñi natural y vecina de San Sebastián, contra su convecino Josef Antonio de Ureta. Ambos contrajeron esponsales ratificados por una relación continua a vista y satisfacción de sus familiares, por numerosas cartas misivas cruzadas entre ambos; pero más tarde Josef Antonio se ha retirado de su cumplimiento. El demandado replica que todo lo aducido por Teresa son expresiones de amistad, pero no promesa de matrimonio. Sentencia absolutoria. Contiene minuciosa declaración de M<sup>a</sup> Teresa, testigos, copia de 17 cartas (traducidas del vascuence) de Ureta y tres o cuatro originales (en castellano) de Teresa. Los originales fueron mandados al tribunal de Burgos.

1. fols. Moreno, c/2560 n<sup>o</sup>6

Ikusi ahal izan dugunez, fitxetan pleitu horretan lekukorik izan den ala ez esaten zaigu, baina ez hartzaile euskalduna izendatzen den ala ez. Are gehiago, euskarazko esaldiren bat agertzen den beste dokumentu batzuetan, ez da hartzaile euskalduna izendatzeko agindurik agertzen. Bi datu hauek kontuan izanda, eta Apezpiku desberdinek emandako aginduen kronologian oinarritzat hartuta, ordurarte aztertu gabeko beste dokumentu batzuk aztertzeari ekin genion, figura administratibo hau dokumentu gehiagotan aurkitzeko asmoz.

Espero genuen moduan, bada figura horren arrastoa, nahiz eta izen desberdina hartu eta euskara zuzenean aipatzen ez den. 1645eko pleitu batean agiri hau aurkitu dugu:

El señor vicario q manda que el Repartidor nome Comisario que entienda en Recevir las Probanzas de Graciana da Enelope cona franco de Leco de San San sobre matrimonio y firme e Pampa a veynte y nueve de sepe de mil seisos qta y cinco = Balga = sanssan

Este negocio se le Reparte a mm de leon Receptr que ba a la probincia y firma con 17 de octubre de 1645.

Antzeko agiri bat dugu urte batzuk geroagoko beste pleitu batean<sup>26</sup>. Gorago ikusitakoen eta hauen artean ehun urteko aldea izan arren, agiriok ia berdinak dira, bi ñabardura salbu:

≅ Terminologia aldaketa: XVII. mendean "Comisario" a dugu, eta XVIII. ean "Receptor" delakoa. Kargu bera dela dirudi, biak Repartidoreak banatzen dituelako, eta biak

frogak hartzera joaten zirelako.

- ☞ Bigarren go nabardura arretaz aztertzea da. Azken aipu honetan ikusten denez, ez da euskara zuzenean aipatzen. Gauzak honela, zer dela eta pentsa dezakegu "entender" dionean "euskara ulertzeaz" ari dela? Erantzunaren giltzarria 1738ko aginduan legoke. Bertan esaten zaigunez:

"se dispuso que à ningun Receptor que no entendiese la lengua bascongada se le cometiese probanza en Pais de ella (...) y que no baste el decir el Receptor, que entiende la dha lengua".

Honen aurrean, garaiko gaztelarako "entender en" esamoldea (dokumentazio juridikoaren hizkeran behinik behin) "zerbaitetan lanean aritzea"ren parekotzat har dezakegu. Honen adibide izango genuke gorago eman dugun aipu batean jaso dugun esaldi hau:

(...) hasta que se publique el Plan específico de Pueblos Bascongados, y Romanzados en que estamos entendiendo.

Badirudi bigarren interpretazio hau dela agirian agertzen den formula ulertzeko aintzat izan beharko duguna. Dena den, ezin uka anbiguitate-egoera horrek hartzaile erromantzatuari Vidaurrek aipatzen duen trikimailua erabiltzeko aukera ematen ziela.

Hartzaile erromantzatu batek herri euskaldun bateko pleitua jarraitu nahi zuenean, euskara ulertzen zuela esan behar zuen agindu hau -1738koa- emana izan baino lehenago (agindu honen ondoren baldintzak gogortu egin ziren). Aldiz, hartzaile euskaldunek ez zuten ezertan adierazi behar gaztelara ulertzen zutenik, tribunalean lan egin ahal izateko gaztelara beharrezkoa zuten-eta. Bestela esan, elizaren administrazioan lan egiten zuten hartzaile euskaldun guztiak elebidunak ziren, eta ez elebakarrak. Hauetako bat herri erromantzatu batera joateko ez zuen gaztelara ulertzen zuenik esan behar. Aztertu dugun 1677 aurreko laginean ez dugu euskara aipatzen duen agiririk topatu. Ez dakigu halakorik ba ote den ala ez, baina baieztatu dezakegun gauza da apezpikuak beren aginduak eman ondoren euskara aipatzen duten agiriak agertzen hasten direla.

Jendea non lurperatu erabakitzeko 1731 urteko pleitu batean, hartzaile euskaldunaren figura agertzen da. Gainera, dokumentu honetako testigantza ez da bildu ditugun besteak bezalakoak. Formalki alderik ez bada ere, datu interesgarri bat agertzen da. Izan ere, lehenago beste hartzaile bat izendatu zen, baina manu honen bitartez espreski euskalduna den hartzailea izendatzen da:

Lizdo Dn Fermin de Lubiau oficial prinal de este obispado manda q sin embargo del nombramto de Comisario hecho por el Repartidor en franco de Alexo de ( \_\_\_ ) el día doze del mes de Maio ultimo pasado para la Recepcion de las Pruebas del negocio que litiga la Ciudd de Sn Sevasan contra el Cavdo Ecco de sus parrochiales, nombre nuebamente Comisario para el mismo negocio q atiende en la Recepcion de dhas Pruebas yq sea Vascongado

Ikusten denez, XVIII mende hasieran garrantzia ematen zitzaion hartzailea euskalduna izateari. Datu hau are garrantzitsuagoa da lekuko asko elizgizonak zirela kontuan izaten badugu (hauek ziren, Vidaurreren esanetan, herri euskaldunetan gaztelara zekiten bakarrenetakoak).

Irigoyen y Dutariren agindupean, 1777an, negozio-banatzailleak Manuel de Esain bidaltzen du Donostiara, aurrerago aztertuko dugun pleitu batean 28 frogak jaso zitzaizkion. Agirian, ez da euskararen aipamenik inondik inora ageri. Eta hau ez da harritzekoa, 1781ean hartzaile euskaldunen alde eman zen ebazpen baten aurrean errekurtsioa jarri zutelako hartzaile erromantzatuak, beraien artean Manuel de Esain. Kontuan izan behar dugu pleituan agertzen denez, informazio plenario baten aurrean gaudela (sumarioak ez ziren gordetzen), eta Donostia herri handien zerrendaren barnean kokatu zutela Gipuzkoako Diputatuek.

Ondorengo testigantzak beranduagokoak dira, 1782ko agindua eman eta ondorengoak.

1782ko pleitu bati esker, 1778ko prozesu horren ondoren egoera nola gelditu zen ezagutzeko datu interesgarri bat bildu ahal izan dugu. Hau garrantzitsua da, prozesu horretan ez baitzen epairik eman, eta hau hala izanik, ezin jakin dezakegu elizako arduradunek zein erabaki hartu zuten.

Maitasun-gutunez mintzo garen atalean aipatuko dugun dokumentuetako batean, honako formula agertzen da:

El señor Lizdo Dn Vicente de Baigorri provisor y Vicario general interino deste obispado manda al repartidor denegocios de su tribunal cometa al comisario deel que tocara la recepcion de las pruebas del pleito matrimonial que litiga Dn Josef Juaquin de Garay vecino del lugar del Pasage contra Manuela Antonia

Chipres natural de Renteria: Pampa y noviembre diez y ocho demil setecientos ochenta y dos. Por el srio Moreno, Martin Josef de ( ). Este negocio, que es de Pueblo Bascongado, cometo à Martin Joseph de Alduncin Recepr designado pa los de ese idioma, respecto de tocarle por su turno. Pamplona, y Noviembre diez y ocho de mil setecientos ochenta y dos.

Ikusten denez, txanda amankomuna edo berezitua ezarri eztabaidatu eta ia bost urte beranduago, euskal herrietara hartzaile euskaldunak bidaltzea defendatzen zuen Vidaurre hartzaile izandakoa, orain negozio-banatzaille dugu.

Vidaurrek, Tolosako agiritegiko paper -sortan dagoen bere gutun bat (1781eko abuztuko) hartzaile titulua aipatuta izenpetzen du. Lezo y Palomequeren agindua 1782ko urtarrilean emana da, eta Vidaurre negozio-banatzaille 1782ko azaroan aurkitu dugu. Pentsatzekoa da azken kargu hau Lezo y Palomeque apezpikuaren agindupean eskuratuko zuela. Ordurako hartzaileen banaketa nola egin behar zen garbi zegoen, eta hala aurkitu beharko genuke dokumentazioan ere.

Eta halaxe da, 1786 urteko beste dokumentu batean 30 beste hartzaile euskaldun bat izendatzen duelako Vidaurrek, Phelipe de San Julian; honen izendapena ere bere txanda iritsia zelako gertatzen da.

Datu hauek guztiak bilduta, ondorio moduko ideia batzuk emango ditugu atal honen amaieran.

## BESTELAKO TESTIGANTZAK

Prozesuetan euskara baliatzen zutela adierazten duten testigantza hauei esker froga dezakegu, lekukoaren aitortzean ez baita hizkuntzari buruzko batere aipamenik egiten. Joera honen aurkako salbuespen bakarra topatu dugu:

Recuerdo que es quanto puede declarar bajo el dho Juramento, y habiendo se le leido esta declaracion en su lengua bulgar bascongada, en ella se ratifico

Testigantza hau bitxia da, ez baita lekukoari, hau berresteko, bere aitortpena irakurtzen zaion prozesu bakarria, baina bai hau euskaraz egin zela dioen bakarria.

Dokumentu honek itzulpen kontuen inguruko beste datu bat eskaintzen digu. Dokumentuan agertzen diren euskarazko hitzak mutilak neskari idatzitako gutunetan agertzen dira; prozesuan, gutun hauek froga moduan aurkezten dira, eta hala izanik, eskribauak euskararen itzulpena ematen du hasieran. Baina euskaraz agertzen diren hitzak nahiz bestelako sinbolo batzuk epaia emateko hain garrantzitsuak direnez (hauetan bailegok ezkontza promesa dagoen, bai ala ez, auziaren erantzuna), gutunen autoreari berari eskribauak egindako itzulpena zuzena den ala ez esateko aukera eskaintzen zaio:

En obedecimto de lo q se le manda por el auto q incluye dho Despacho, hace la distinción y claridad de los enigmas y signos que dhas diez y siete esquelas comprenden descifrando su propia y verdadera inteligencia y significazion en la forma siguiente a saber (...) que el Bascuence de su primer renglon significa (...)

Donostian egiten ziren epaiketetan lekukoek (eta hartzaileek) euskaraz hitzegiten zutela frogatuta badago ere, ezinezkoa zaigu epaiketetan bertan hauetakoa zenbat mintzo zen euskaraz zehaztea. Hartzaile euskalduna bidaltzen zenetan, agiri bat gehitzen zitzaion prozesuari (orain arte aztertu ditugunak bezalakoa, alde txiki batzuk badirela ahaztu gabe). Baina hemendik aurrera hitzez esandako guztia gazteleraz agertu ohi da dokumentazioan (froga ziren neurrian, idazkien kopia literala egiten zen, beren itzulpenarekin beharrezkoa zen kasuetan).

Esan nahi baita, lekuko bakoitzari zinarazi egiten zitzaiola, eta hala jasotzen da prozesuetan. Ordea, ez zaigu esaten aitortpena zein hizkuntzatan egin zen. Datu hauek apuntatu izan balira, garai hartan euskarak nolako egoera soziolinguistikoa bizi zuen aztertzeo aukera izango genuke, epaiketa bakoitzeko kopuru absolutuak oinarritzat harturik.

## TOLOSAKO AGIRITEGIAN GORDE DOKUMENTUAK

Iruñean bildu ditugun datuak alde batera utzita, dokumentazio zibilak eman duena aztertzer pasako gara. Tolosako pleituen kasua harrigarria da benetan. Hango arduradunekin hitzegin genuenean, hoberena "Criminales" delako saila begiratzea genuela esan ziguten, eta hauen artean "Por injurias" direlakoak, azpisail honetako dokumentuetan aurkitu izan baitira euskarazko testutxoak beste herri batzuetako dokumentuetan. Halaber, "declaro en vascuence" edo antzeko formularen bat erabiltzen duten dokumentuak badirela esan ziguten.

Segi baino lehen, gauzatxo bat argitu behar dugu. "Criminales" delako saila oraindik osoki katalogatu gabe dago. Katalogatua dagoen zatiaren fitxetan aurkitu dugun azken dokumentua 1680-1690 hamarkada ingurukoa da. Hau honela izanik, ezin aldera genezake hemen esatera goazena orain arte Iruñako agiritegian topatuarekin, garai desberdineko dokumentuak baitira, eta ikusi dugunez, orain arte aipatu ditugun dokumentu gehienak 1700 ondorengoak dira.

"Injurias" direlako dokumentuak (70 inguru) aztertu ondoren, ez dugu euskarari buruzko inolako aipamenik aurkitu: ez itzultzailea zegoenik, ez aitortpena euskaraz egin zenik, ez eta irainik ere.

Bada hala ere, alde batera utzi ezin dugun 1687ko agiri bat. Honetan berriro ere "entender en" esamoldea ageri zaigu, eta goian aipatu dugun arazo bera dugu honen interpretazio zuzena zein den zehazteko:

E yo ebedeciendo al dho despo dije estava presto y prompto de entender en esta Provanza

Honekin batera, badira pleituetan jasotzen den liskarra gertatu zenean jendeak euskara euskaraz mintzatu zela adierazten diguten bi aitortpen. Lehena, "agote" deitu izateagatik jarritako pleituen arteko batean (1630) aurkitu dugu. Lekuko batek hau dio:

les dixo adonde tener (?) el arozcho, que en Romance quiere decir carpinterillo

Beste batek (iraina gertatu zenean aurreko lekukoarekin batera zegoena) ematen duen erantzuna honakoa da:

(...) que si avian traydo las piedras para el agotecho que quiere decir en Romance agotillo

Pleitu osoa (eta antzeko batzuk) irakurri ondoren, garbi esan daiteke erabilitako iraina "agotecho" dela, besteren artean lehen lekukoa "un poco sordo" dela esan baizaigu lehentxoago (7 folioan bertan). Baina garrantzitsuena ez da erabili zen irain-hitza zein den argitzea, erdi gorra den pertsona batek, iraina gaizki entzunda, euskarazko hitz bat ematen duela baizik. Hau da, pertsona horrek euskararako joera erakusten du, eta ez hori bakarrik; iraina bota zuenak ere euskaraz hitzegiten zuela pentsatuko zuen, haren hitzen berri ematen ari baita bere aitortpenean.

Kontuan izan behar dugu aitortpenak gaztelera egonda ere, zehar-estiloan agertzen direla, eta hau hala izanik, ezin ziurta dezakegula aitortpen horiek zein hizkuntzatan egin ziren. Azken finean, aipatu ditugun Iruñeako dokumentuetan agiri berezi batzuk agertzen direlako jakin dezakegu nahiko garbi lekukoek euskaraz egin zituztela beren aitortpenak; bestela, ezinezkoa izango litzaiguke ezer ziurtatzea. Agiri hauek salbu, batzuetan eta besteetan agertzen diren lekukoen zin-egiteak oso berdintsuak dira formalki:

La dha Magna presento por tesos pa la primera y tercera pregtas del dho articulado a Xtobal de Cumarrieta, Juan de auza y Domingo de Arias Vezos de esta Ciud de quienes yo el dho escribo recevi Juramto por dios no sr en forma devida de derecho, y ellos, cada uno de porsí hicieron Vien y Cumplidamte

Lekukoen hitzak zehar-estiloan ematen zaizkigu ia beti. Bada salbuespenen bat, baina ez aitortpen osoari dagokiona, hitz oso jakin batzuei dagokiena baizik. Eta kasu hauetan, estilo zuzenean agertzen diren hitzak gaztelera idatziak dira. Hona esaterako 1606 urteko pleitu batean agertzen diren hitzak:

con el lancon que traya en la mano le dio un golpe y entonces el dicho martin perez - dixo, quereysme matar, y cuando esto oyeron (...)

Gorago aipatu bezala, Tolosan bildutako datuen artean bi dira, epaiketan bertan ez, baina iraina bota zeneko unean lekukoek euskaraz mintzo zirela adierazten duten aitortpenak. Bigarrena, eta aurrekoa baino garbiagoa, 1687. urteko pleitu batean aurkitu dugu:

(...) que decia a los dhos Padre e hijo salgan conmigo cobardes; a lo qual la testigo le dijo sino tenia discrecion y no mirava a las canas de aquel pobre viejo y questas razones dijo la testigo en lengua bascongada a que el dho Manuel respondio q no entendia guirigai y la testigo en su mal romanze le dijo y bolbio a decir las mismas razones

Berriro ere, Donostiako pertsona batek euskara erabiltzera jotzen du, eta ulertzen ez diotela esaten diotenean, gaztelera txarrean hitzegiten du. Andre horrek gaztelera jo behar izan zuen euskara ulertzen ez duen pertsona, Manuel de Pomarera, segobiarra zelako (hala dio



bere aitorpenean, 9. folioan). Donostian, eta batez ere Pasaian, kanpotar ugari zegoen, portuen garrantzia ekonomikoa zela-eta. Aitorpen txiki hau irakurrita, eta datu gehiago izan gabe, kanpotik zetozen gaztelarrek euskara ikasteko beharrik ez zutela ondoriozta daiteke. Edo bestela esan, garai hartarako Donostian euskara jakin gabe bizi zitekeela.

Donostian euskaraz egiten zela adierazten diguten beste arrasto batzuk ere baditugu: dokumentuetan agertzen diren euskal jatorrizko hitz askeak. Hauetako batzuk oso garbiak dira, nahiz eta mendeen joan-etorriarekin hainbaten esanahia aldatu delako susmoa izan dezakegun. Beste batzuk ordea kontu handiz aztertzeoak dira, askotan labainkorra gertatzen den etimologiaren alorrera jo beharko genuke-eta hauek azaltzeko.

Lehen azpisailean "mala be-orra" eta "Amandrea barroa"<sup>39</sup> irain-hitzak sartuko genituzke (beste dokumentu batzuetan "yegua" gaztelarazko ordaina agertzen da lehenaren modu berean erabiltuta). Euskaraz esan-idatzitako zerbait agertzen denon gaztelarazko ordaina emateko joera dagoen arren, hitz hauekin ez da horrelakorik gertatzen.

"Picherrero" eta honen oinarria litzatekeen "pichel" bigarren azpisailean sartzekoak direla deritzogu; forma hauek garai hartako Donostiako gaztelarazko euskaratik hartutako mailegu normalizatuak zirela esan daitezkeela uste dugu, bi arrazoigatik: lehenik, hiru dokumentu desberdinetan agertzen direlako; eta bestetik, lehenak gaztelarazko eratorpena jasan duelako (beraz, pentsa daiteke Donostiako gaztelarazko pitxel / pitxer barneratua zegoen hitza zela). Baina esan bezala, datu hauetan oinarrituta orokorpenak egitea oso arriskutsua da, oso oinarri ahuleko argudioak baliatuko baikenituzke.

Administrazioaren kontu hauekin amaitu baino lehenago, bada aipatu behar dugun beste datu bat. Pare bat pleitutan agertzen diren kanpoko lekukoak frantsesak dira. Honelakoetan, argi esaten zaigu galdetegia itzuliarazten dutela, lekukoak galdetzen zaiona uler dezan:

*Se hico (sic) auto del dho pedimiento y acetado la dha comision y por que juntamente con el articulado por el qual los dhos testigos an de ser exsaminados (...) en lengua española (...) ordenamos que se traduxiese*

## ONDORIO ANTZEAN

Elizako administrazioak nahiz administrazio zibilak euskararekiko zuten jarrera aztertzeari eskaini diogun atal honi amaiera emateko, eta bildu ahal izan ditugun datuen eskasia ahaztu gabe, ondorio moduko ideia hauek papereratuko ditugu:

- ✍ Euskara ez zen, orohar, administrazioek kontuan hartzen zuten elementua.
- ✍ Donostiara, eta informazio plenarioa jasotzeko, hartzaile euskaldunak eta erdaldunak bidali zituzten negozio-banatzaille desberdinek.
- ✍ Hala ere, hau ez da hiriko egoera soziolinguistikoa onorioa, Iruñeko Apezpikutzaren barneko agindu desberdinena baizik.
- ✍ Hartzaile euskaldunak baziren, baina hau frogatzen duten agirietan oinarrituriko ondorio guztiak zalantzan jartzekoak dira, ez baitaigu esaten zein lekukok egin zuen aitorpena euskaraz eta zeinek gaztelaraz.
- ✍ Hartzaile euskaldunak izanik ere, herrian gaztelara hitzegiten zuen baten bat bazen, honengana jotzen zuten askotan, batez ere euskara galtzen ari zen herrietan (honen berri zehatzagoa izateko, irakur Iruñeko Apezpikutzako Agiritegian dagoen c/2071 n29 dokumentu garrantzitsua).
- ✍ Euskaldunen hitzak zuzenean itzuli egiten ziren (idatziak ez baziren) eta, salbuespenak salbuespen, ez zitzairen oneritzia eskatzen, itzulpen oker batek ekar litzazkeen eragozpenel muzin eginik.
- ✍ Hartzaile erdaldunek zuzen jokatzeko zutela onartuta (1777ko pleituan ez da interpretarik aipatzen), Donostian XVIII. mende bukaera aldera gaztelara hitzegiten zela ondorioztatu behar dugu. Era berean, XVIII mende buakera aldera ere euskara hitzegiten zela garbi gelditu da 1782 eta 1786ko pleituen bitartez.
- ✍ Esan bezala, garaiko egoera soziolinguistikoa berri zehatzagoa eman ahal izateko, agiritegiak dokumentu guztiak aztertu beharko lirarteke, edo "Libro de Repartimientos" zirelako horietakoren bat aurkitu. Gure honek halako lan bati bideak ireki diezazkelakoan gaude.

XVII eta XVIII mendeetako agirietan joera desberdina dagoela ikusi dugu Iruñeko dokumentazioa aztertzerakoan. Baina Tolosan bildutako dokumentuetan (denak XVI eta XVII mendeak), joera bera agertzen da, hau da, hartzailea izendatzen denean (beste prozedura baten bitartez), ez da euskara sekula aipatzen.

Joera desberdin hau azaltzeko hipotesi bat dugu, beste ikerlari batzuekin eztabaidatu beharko litzatekena. Gure ustez (eta ustea da, ez dugu baieztatzen inolako daturik), bi mende hauen arteko desberdintasuna, Gipuzkoan behintzat, ez genuke euskararen mugan kokatu beharko, hau ez baitzen mugitu, gaztelara hitzegin edo ulertzen zuen pertsona-kopuruan baizik. XVII. mendean Gipuzkoan gaztelara zekitenen kopurua XVIII mendekoa baino txikiagoa zelako ustea ona bada, pentsatzekoa da XVIII. mendean bi hiztun-erkidegoen arteko muga aldakor horiek ondo zehaztea lehen baino garrantzitsuagoa izango zela. Honen



ondorioz, eta beti gure hipotesiaren arabera, agirietan euskal herrietarako hartzaileak nora zihoazten argi eta garbi azaltzeko beharra etorriko litzateke. Ez dugu ahaztu behar 1778ko auzian, ordurarte herri erromantzatu eta euskaldunen errolda egin gabe zegoela esaten zaigula, ez baitzuten halako beharrik ikusten.

Dena dela, hau baieztatzea guztiz gaitza gertatuko den hipotesi bat besterik ez da.

Datu hauek guztiak aztertu ondoren, oso zaila gertatzen zaigu ondorio eta orokorpen zabalak egitea, ez baitugu azterketa historiko sakon bat egiteko beharrezkoak den oinarri dokumentalik. Agertzen diren datu gehienak zeharkakoak dira, eta garaiko egoeraren zertzelada bat marrazteko baliagarriak; baina hemendik aurrerago joatea ezinezkoa zaigu.

## Idazkiak

Klase gorenetako pertsonak idatzitako zenbait eskutitzek datu interesgarriak erakusten dizkigu pertsona horiek hizkuntzaren aurrean zuen jarreraz. Nahiz eta euskaraz hitzegiteko gai izan, oso kasu berezitan bakarrik erabiltzen zuten. SAGARNA (1984: 44)

Atal honetan pleituetan bildu ditugun euskarazko idazkiak aztertuko ditugu: nolako pleituetan agertzen diren, nolako testuak diren, erabilitako euskaraz hitz bi... Egia baita, Sagarnak dioen bezala, testutxook idatzi zituzten pertsonak euskaraz jakin arren, oso egoera edo testuinguru jakinetan baizik ez direla agertzen idazki hauek.

Hegoaldeko euskal lurretako administrazio-erakunde desberdinen dokumentazio ia guztia gazteleraz agertzen delako aipamena aspaldikoa dugu<sup>43</sup>. 1908. urtean hau esan zuen Serapio Mugikak (1908: 725):

Cuando yo comencé á arreglar los Archivos Municipales de Guipuzcoa por encargo de la Excma Diputación Provincial, era creencia general entre las personas que se ocupaban del pasado de nuestro país, la de que iba á encontrar en aquellos depósitos de papeles muchos documentos escritos en lengua vascongada, y sin embargo no ha sido así. Algunos, muy pocos, he hallado escritos en latín y todos los demás están en lengua castellana, con muy raras excepciones.

Hau ez da udal agiritegietako dokumentuetan soilik gertatzen; orain arte ikusi ahal izan dugun moduan, XVI-XVIII mende bitartean bestelako erakundeek ere dokumentazio guztia gazteleraz idazteko joera zuten. Honela, lekukoek aitorpenean euskaraz hitz egiten bazuten ere, paper ofizialetan esandakoaren gaztelerazko itzulpena ageri ohi da zuzenean, salbuespenak salbuespen (irain-hitzen bat edo beste).

Dokumentu hauetako batzuetan badira, hala ere, euskaraz idatzitako idazki nahiz pasarte batzuk. Oro har, guk bildutakoak sailkapen batera edo bestera makurtzea oso lan erraza da: berez, ez dira pleituetako prozeduraren inguruan sortutako materialak (agiriak, deiak, ebazpenak...), epaiketetan argudio baten edo bestearen frogatzen diren testuak baizik. Are gehiago esan genezake; jaso ditugun guztiak maitaleen arteko gutunak eta, testuinguru honetan bertan kokatzen den bertsoren bat dira (itzultzaileak "Versos de unos amantes" izendatu zituenak esaterako).

Ezkontza arazoak zeudeneko pleituetan bildu ditugu, beraz, atal honetan landuko ditugun datuak. Hauen artean, gehiengo ezkontzeko hitza eman eta betetzen ez zenean jartzen ziren pleituek osatzen dute. Hitza emana zutela frogatzeko, "papeles esponsálcios" izenekoak aurkezten zituzten, non bi maitaleek ezkontzeko hitza ematen baitzioten elkarri (eta askotan ezkontza handik zenbatera izango zen ere adierazten zuten). Paper hauen balioa indartzeko, bien artean idatzitako gutunak ere aurkezten ziren, ezkontzaz edo elkarrekiko maitasunaz mintzo ziren neurrian. Dokumentazioan bildu dugun euskara honelako testuetan aurkitu dugu (hitz aske batzuez gain). Era berean, eta testu guztiak 1760-1790 bitartekoak izanik, beraien artean garaikideak direla esan daiteke.

Ezaugarri tipologiko txiki hauek guztiz bat datoz beste herri batzuetako pleituetan aurkitu izan diren antzeko eskuizkribuenekin: Azpeitia (1622)<sup>44</sup>, Uterga (1547)<sup>45</sup>, Oiartzun (1664) 46 eta beste.

### MAITASUN -GUTUNAK

Gerturatze hau egin ondoren, ohar garrantzitsu bat gehitu behar dugu: izan ere, ez dugu euskara hutsean idatzitako maitasun-gutunik aurkitu<sup>47</sup>. Ikusiko dugunez, euskara gehienetan agurtzeko formuletan agertzen da, eta hainbatetan gutunen pasarte oso bat izatera ere iristen da, baina sekula ez gutun osoa.

Esan bezala, gehienak agur-formulak dira:

Nere maite te recuerdo la mui deseada carta con la que veo que gosas la cabal salud (...)

no te pongo mas por no molestarte, à Dios nere maitea besteren pusca icusi arte nibeti surea agur nere polita

Nere maite maite maite gustizco D<sup>a</sup> Theresacho: Con razon seme queja Vmd deque (...)

Hortik aurrerako guztia gazteleraz agertu ohi da, maitasuna adierazteko hitzen bat salbu

(nere maitea edo antzeko esapideak).

Sagarna garai honetako antzeko beste gutun batzuez mintzo da bere artikuluan (1984), baina bada ageriko desberdintasun bat. Euskaraz idazteko arrazoietakoa bat, batez ere goi mailako pertsonen artean, izkutuko kontuez hitz egitea izango litzateke, Sagarnaren esanetan. Honela, Peñafloredaren gutun batzuk aurkezten dizkigu, joera hori erakusten dutenak. Gure testuetako egileak, ordea, behe mailako pertsonak dira, Lekuona zaharrak "herri xumea" deitu zuena. Hauek ez zuten aipamenak egiteko behar hori izango, eta hala egiaztatzen da beren idazkiak irakurri eta aztertu ondoren.

Izan ere, arestian aipatu agur-formulak ezagunak gertatuko zitzaizkien Donostiako pertsona erdaldunei (hala nola: maitea, bihotza...); eta pasartea luzexegoa denean, ez dirudi ezer izkutatzeko helburua dutenik. Are gehiago, testu horiek behin eta berriro irakurrita, ezinezkoa gertatzen zaigu lerro jakin horietan euskara erabiltzeko arrazoia. Hizkuntza batetik besterako jauzi naturala dela esan daiteke. Hona adibide bat:

Nere gustisco beguietaco Arguinpa (?). Aier la Juaquina me entrego la esquila de Vmd en cuia respuesta dice, que es imposible no sea el hijo de la desdicha, pues en este mundo para mi ni (sic) hay sino angustias congojas penalidades disgustos, yen fin, mi total mortificado, pero no me glorio que guisa Manuelcho lo tendrá dispuesto asi cumplase su Divina boluntad. Amen.

Aora me allo mui Consoladisimo de que con mi Pata tuerta seré mas dichoso en lo temporal por que por lo regular es dichoso todo Tullido, manco y Baldado asi ea Hija animate se olvidaron mas penas pues asi me persuado:

Nerea Maria Theresacho nere Soragarria ondo desio det su eayteco baña naizates paciencia bia (sic) asquo det egun abetan vara (?) gaur da amaicarren eguna nagoela esin eguituric (?) oñetatiq aun quedifisa cura eiñ ondo lenbisico irtera eguingo det suri lastam vat y ematera an artean iruquiesasu paciencia.

Siento mucho el que se haia alarmado Vmd conmigo metiendosela el plato / por el pie Amiga andar vien quesino despues suele aver las resultas como ami me a sucedido asi lo espero q. ara Vmd contanto agur prenda de mis ojos, aun q. a Vmd no le parezca a pesar del Mundo astaq. nos beamos junto a esa Vidriera que save es mui suio con ( vien erido: J.V.

Aipuaeren luzeak euskaraz agertzen diren pasarteek duten balio erlatiboa hobeto hautematen eta mugatzen lagunduko duela uste dugu; horrexegatik ekarri dugu hona gutun oso bat. Kontuan izan behar dugu, gainera, hau dela euskaraz idatzia dagoen pasarte luzeenetakoa.

## Zer adierazten digute gutun hauek?

Pelloren egia esatea dirudien arren, gauza nabaria da gutunak idatzi zituzten pertsonak nahiz jaso behar zituztenak euskaraz mintzo zirela. Baina zer dela-eta bi hizkuntzen erabilera hori? Pertsona horiek euskaldunak baziren, nola azal liteke testuetan agertzen den gazteleraren nagusitasuna? Irakurri dugun pasarte horretan ez dago izaerazko desberdintasunik euskaraz eta gazteleraz adierazten denaren artean, ez dirudi testua idatzi duen pertsonak ezer ezkutatu edo, bestela, nabarmentzeko asmorik duenik.

Egiate hau bezain harrigarriak gertatzen zaizkigu "c/2545 n16" prozesutik jasotako datuak. Honetan, mutilaren gutun ugari bildu da (20 inguru), eta hauetako askotan bada euskaraz idatzitako zatiren bat edo beste (pleitu guztietako euskal pasarte luzeena hauetako gutun batean agertzen da). Baina agurrak ez direnean, arestian aipatu dugun patroia jarraitzen dute, hau da, gutunaren edozein pasarte ager liteke euskaraz, esaten denaren garrantziari so egiten badiogu behintzat.

Gauzak honela, lerrook sailkatzeko bi sail bereziko genituzke:

- ⌘ Agur-formulak.
- ⌘ Pasarteak.

Satrustegik (1983) argitara emandako bost eskutitzak eta hemen aipatuak sailkapen beraren barnean sar daitezke zalantzarik gabe, nahiz eta, horiek bai, oso-osorik euskaraz idatziak egon. Pleitua 1761ekoa da (gureen garaikide beraz), matrimoniala da (gureak bezala) eta gutunak ez dira prozesuak berak sorturiko idazkiak, neskak bere aldeko argudioaren frogan moduan aurkeztutakoak baizik. Eta euskarazko hauekin batera, maitaleek elkarri gazteleraz idatzitako beste gutun batzuk ere badaude.

Datu hauek ikusita, batek pentsa lezake oso arraroa dela XVIII mende bukaera arte hauen antzeko beste gutun batzuk ez azaltzea antzeko pleituetan. Baina egoera hau ez da harriztekoa, lehenago ez baitzen ohiturarik honelako gutunak idazteko, herri xehearen artean

bederen. Kontuan izan behar dugu oso jende gutxi zekiela idazten, eta hauen artean ere, ohitura gaztelaraz idaztea zela. Behean aztertuko dugun pleitu batean, neskak mutilari kantatzen ari zen bertsoak idaz diezazkion eskatzen dio, berak ez omen daki idazten -eta.

**XVI.** mendean ezkontzaren inguruan bestelako ohiturak zeudela erakusten digu Satrustegik beste artikulua batean (1992). Garai hartan, ezkontitza ahoz ematen zen, askotan izkutuan, eta ez zen bitartean inongo paperik izaten (1992:56-57):

Juan de Gorriti testigo presente en el lugar de los hechos y ministro circunstancial de la ceremonia, uniendo personalmente las manos derechas de los contrayentes, según su propia declaración, dijo primero a Martín verba bulgari sermone quae secuntur (...) qui quidem martinus respondit similiter dicendo

Erabiltzen zen formulaz ez zen alde handirik izaten (1992: 55):

(...) el formulario habitual de los matrimonios secretos considerados válidos hasta el Concilio de Trento viene a ser similar en todos los casos

## **OSPAKIZUN KRISTAUAK**

Azpiatal honetan izaera desberdina duten bi ospakizunetaz mintzatuko gara: "autos sacramentales" direlakoak, eta gabon-kantak.

Autu Sakramentalei buruzko informazio guztia Luis Murugarren jaunaren artikulua batetik (Murugarren, 1993) ekarri dugu. Artikuluan ematen dituen datuak oso interesgarriak badira ere, guk hizkuntzari dagozkionak besterik ez ditugu aztertuko.

Murugarrenek diozkenez, 1602 urtea baino lehenago Donostian honelako antzezlanak ezagunak izango ziren, urte horretan hondarribitarrek bere herrian antzeztu behar zuten lanerako Donostiara etorri baitziren jantzi egokiak erostera. 1619an casa de comedias bat prestatzeko lekua proposatzen da. 1621ean hiri kanpoko "antzerki" talde bat ekartzeko baimena ematen zaio Echeverri idazkariari.

Beste aipu batzuk badaude, baina 1668ko dokumentu batean autu hauen aipamen nabarmena agertzen da. Dokumentu honetan 1663 ospatutako beste autu batzuei buruzko informazioa ere bil daiteke. Azken hauek direla eta, susmo hau ageri du Murugarrenek (1993:718):

Su devoción sólo se extendió al trabajo personal y, para tages estrahordinarios, çintas y otras, fue nezessarios (sic) darles alguna cantidad y, a ynstan çias del capitán Sandóval, que tomo por su quenta el cuydado de la disposición, se les dieron mil y duçientos reales

No creemos equivocarnos al sospechar que el auto sacramental que pudieron representar aquellos soldados metidos a actores, bajo la dirección de su capitán Sandóval, estaría redactad en castellano, y (sic) ellos lo usaban a diario

Gorago esan dugu hauetako errepresentazio bat ospatzeko kanpoko jendea ekartzeko baimena eman zitzaiola idazkariari. Ez dugu esan ordea, kanpoko jendea ekartzea lortuko ez balitz, herriko ikasle zein elizgizon batzuei antzezlanak prestatzeko baimen berezia emateko eskatzen zaiola Echeverriari.

Ikasleak, elizgizonak eta soldauak, beraz. Hauek guztiek gaztelara ezagutzen zuten, eta ikasle zein elizgizonak menperatu ere, menperatuko zuten (eta irakurri, noski). Murugarrenen susmoak 1633an ospatutako autuez gaindi, aurretik ospatutakoak ere har ditzakela iruditzen zaigu. Hau da, autua gaztelaraz idatzia bazen, ez litzateke harriztekoa izango beraz prestatzeko (irakurtzeko) kanpoko jendea behar izatea, hirian gaztelara irakurtzen zuen jendea gutxi zen-eta. Kanpokoak ezean, hiriko jendeak presta zezakeen antzezpena, baina ez edonork, ikusi dugun moduan.

Axaleko taxonomia eginez ospakizun kristauen barnean sartu dugun beste elementua gabon-kantak ditugu.

Urkizuk 1982an "Eguerritaco cantac 1789. urtean ezan (sic) ziranac Donostiyaco erriyan" argitaratu zituen, baina zoritxarrez ez du informazio handirik eskaintzen, Donostiako Aldundian aurkituak direla besterik ez. Kalzakortak, 1999an, bila ibili arren aurkitu ez dituela esan ondoren, Satrustegik (1988) jasotako beste gabon-kanta batekin erkatzen du, ondorio honetara iristeko (1999: 138):

Aurrera baino lehen, pentsatzekoa da bi aldaeretan zaharragoa dela Donostiakoa. Zaharragoa ezezik, osoagoa eta garbiagoa ere bai. Osoagoa, data (1789), non kantatua den (Donostia), errepika eta doinuaren berri ere agertzen delako. Garbiagoa, inolako ilunune edo ezabatunerik agertzen ez delako.

Kalzakortak dioenez (1999-133) garaiko ohitura zen, batez ere herri handietan, urtero gabon-kanta berriak kantatzea:

Hona, kasurako, idazle donostiarraren (Jose Vicente de Echegarayz ari da) kanta-paper batzuen izenburuak "Eguberri kantak Donostiyako Santa Mariyako Premileizan kantatubak 1816-garren urtean" edo "Eguberri kantak Donostiyako Santa Mariyako Permleizan 1817-garren urteko eguberriyeta kantatubak". Eskuardean ditugun datuen arabera, jakin dezakegu, beraz, urtero gabon-kanta berriak ateratzeko ohitura zegoela hainbat elizatan, zein Gipuzkoan, zein Bizkaian. Hiriburuetan, itxurak direnez, finkatuago zegoen ohitura hori. Zein Bilbaon, zein Donostian, gabon-kanta berriak kanta-paperetan atera eta kantatu egiten zituzten eliza izentatueta.

Jose Vicente de Echegarayren bertsoak aita Zabalak argitaratu zituen 1964an, Auspoa sailean. Bertan jasoen artean, hamaika bertso-sorta dira gabonetan kantatzekoak, denak urte desberdinekoak eta XIX mendearen lehen erdikoak. Dirudienez, Echegarayk txikitatik herrian bizitako ohituraren jarraitzaile genuen. Eta ohitura hau ez zen izango Eguberri garaikoa bakarrik, ugariak baitira ere Ihauteri garairako jarritako sortak.

Manuel Lekuonak ere aipatu zuen Donostiako gabon-kantetako bertso bat (1956: 11), baina zoritxarrez ez digu kanta osoa ematen, ez zein garaikoa izan ote daitekeen esaten..

## VERSOS DE UNOS AMANTES

Bertso hauek J.M. Satrustegik eman zituen argitara 1995. urtean. Izenburu hau 52 daramate Francisco Antonio de Maizek Ana Maria de Yarzari idatzita eman zizkion hamaika bertsoek kopia originalean eta eskribauaren kopian (atal honen amaieran gehitu ditugu). Bada bertso hauek benetan bitxi egiten dituen ezaugarri bat: agur-bertsoa salbu, beste guztiak euskaraz eta gaztelaraz idatziak daude.

Bertso guztiak zortziko txikian eta bi punturekin onduak dira; askea den bertso-lerroa gaztelaraz idatzia da, eta puntua daraman bertso-lerroa euskaraz. Aurrerago aipatuko dugun moduan, tankera honetako ezagutzen diren lehen bertsoak mende bat geratutakoak dira.

Bertso-sorta honen inguruko istorioa zinez interesgarria da. 177853 urteko ezkontza pleitu batean agertzen dira, eta Ana Maria de Yartzak bere aldeko frogak moduan aurkezten ditu (beraz, orain arte aipatu dugun sailkapenaren barnean sartuko litzateke, nahiz eta ez izan hitz-lauzko idazkiak). Francisco Antonio de Maizek bertsoak berriak eta berak idatziak zirela esan omen zion neskari. Bertsoetako batean, berarekin ezkontzeko asmoa zuela adieraziko zuen,, betiere Yartzak esandakoaren arabera. Puntu honetan oinarritzen du Yartzak bere aldeko argudioa.

Maizek, ordea, beste zerbait aitortzen du epaiketan. Bere esanetan, bertsoak ez dira berak sortuak. Bere herriko mutiko batek eman omen zizkion, eta neskarekin batera zegoela, kantatu egin zituen. Ana Maria de Yartzak bertsoak idatzeko eskatu zion, gustokoak zituen-eta. Hala egin zuen Maizek; baina, dioenez, Yartzak aurkeztu duen paperean lerro bat aldatua dago, eta aldaketa horrek, ezkontzeko eskaerari dagokionez, bertsoaren zentzua goitik-behera aldaraziko luke. Hau adierazten duten pasarte batzuk ekarriko ditugu hona:

Neskak dioena:

que en el dia quince de Abril de dho ultimo año entregò la contraria (Maiz) à la declarante (Yarza) unas canciones que estaban colocadas mitad en el Idioma Castellano y mitad en el Bascongado asegurantola ser nuebass y haverlas sacado, y escrito el mesmo

Mutilak dioena:

Item que con el motivo de haver visto la conria que mi pte leia las letras ó versos que refiere en su arto le pregunto de donde las havia adquirido, a que le respondió qe un muchacho de su tierra se las havia dado, y traido de la Ciudad de fuenterravia donde estuvo en calidad de page con el theniente Rey, y que le aseguro las havia sacado un Abogado de Tolossa, y llevada de la curiosidad dha conria le pidio una copia

Item qe quanto la conria (Yarza) asienta con referencia a las citadas letras para persuadir los contenciosos y supuestos Esponsales, es la prueba mas combincente de la injusticia con qe camina, respecto de que para qe dhas

canciones influiesen alguna cosa el renglon ultimo de la tercera copla se halla mudado de su original lo que claramente se comence de la diversa composicion que se advierte en el verso

quien tiene pte que el renglon borrado asi como demuestra decia: oraindic ezia y con esta misma expresion y no con la añadida: qe dice de letra distinta: zurequin nai det ezcondu estaban escritos dichos Bersos quando se entregaron a mi parte

Are gehiago: bertsoak Hondarribian, Tolosan, Donostian eta beste hainbat herritan kantatuak eta ezagunak ziren:

Item qe en prueba de lo relacionado hace que las referidas letras, han sido publicadas asi en la Ciudad / de Sn Sebastian y Tolosa como en diversos Pueblos, en los cuales se han cantado con toda publicidad

Benetan aldatua izan al da hirugarren bertsoa? Emango ditugun arrazoei galdera honi baiezeko erantzuna eman behar zaiola frogatuko dutelakoan gaude.

Prozesuan bertso-sortaren hiru kopia agertzen dira (nahiz eta dagokion fitxan bi besterik ez diren aipatzen). Lehen biak notarioak egindako kopiak (33 folioa, Satrustegiren artikuluan "C kopia") eta Ana Maria de Yarzak aurkeztu zuen originala (60 folioa, Satrustegirenean "A kopia") ditugu. Hirugarrena herririk herri entzun zitekeen jatorrizko bertsoa litzateke (Satrustegirenean "B kopia")

Gorago oin-ohar batean esan dugunez, azken kopia hau agertzen deneko papera berezi samarra da. Garbi dago ez dela pleituetako folioa, hauen laurdena besterik ez baitu neurtzen. Bestalde, aldeetako batean Mutrikun sinatutako gutuntxo bat agertzen da, prozesu honekin zerkusirik ez duena (Satrustegiren artikuluan ez zaigu honen inguruko aipamenik egiten). Eta benetan bitxia dena: foliazio bikoitian eskutitz hau agertzen da, eta beraz, bertsoak bakoitian gelditzen dira. Hau gutxi balitz, orriari buelta ematerakoan bertsoak buruz-behera topatuko ditugu. Gure kulturaren irakurtzeko ohituren arabera, foliazioaren alde bikoitia bakoitia baino garrantzitsuagoa da. Zer esanik ez, testua goitik behera izatea... Zergatik orduan prozesuari dagozkion bertsoak garrantzia gutxieneko aldean eta, honen ondorioz, testua bera buruz behera jarri?

Prozesu honi dagokion fitxan agertzen ez den hirugarren kopia, aipatu dugun azken hau delakoan gaude.

Ezkontza aipatzen duen bertso-lerro erabakigarriaren bila hasita zera ikusiko dugu,: lehen kopian "zurequin nait ezcondu" agertzen da, bigarrenean (Maizek Yarzari emandako kopian), oraindican echia dirudiena tintaz estalia dago, eta honen azpian "sure quin nai de (sic) escondu", beste pertsona baten idazkeraz eta bertso artean jarritako marratxoaren gainean; azkenik, hirugarren kopian "oraindican echia" bertso-lerroak isten du hirugarren bertso hau.

Bertso originalaren ilunune hau argitu ahal izateko Ursula de Amundarain lekuko ordiziarraren hitzak oso lagungarriak gertatuko zaizkigu:

Al nueve, con vista de la Carta ó Cantares que le ha sido leyda y mostrada por mi el recepor infraesto dijo que en le tercer verso, aunque dize y acaba con la diction echea, en lugar de ella, siempre a hoydo Cantar la test<sup>o</sup> echia, cuyas palabras contempla que la Echea significa casa y Echia desengaña

la misma tes<sup>o</sup> a solido cantar en la forma siguiente y es el tercer Berso de dhas Letras: Blanco de mi cariño afectos betea, siempre estoy pensando ceradela nerea, hermosa azuzena cerutic jachia, no puedo yo quedarme oriandic echia

Jatorrizko bertsoa azken hau dela uste dugu. Zortziko txikiaren neurria ondo betetzen du (sei silaba), zurekin nahi det ezcondu-k ez bezala (8 silaba), puntua ere behar duena du (ja(i) tsia-etsia), eta logika mailan aurreko bertso-lerroarekin dagoen alde txikiagoa da. Gauzak honela, Maizek egia esaten duela uste dugu; eta hala iritzi zuen epai-mahaia ere, epaia Maizen aldekoa baita. Lerroaren neurria dela eta, ez gaude erabat ados Starustegik ematen duen azalpenarekin (1995: 44):

Métrica forzada. (...) El que no tiene arreglo es el texto espúreo que sistituye al último verso de la estrofa número tres: Surequin nai de ezcondu (sic) (32). Suma siete sílabas en la redacción propuesta, y sólo la licencia fonética de suprimir la r de la sílaba inicial podría restablecer la medida correcta: suequin.

Gure ustez, lerro hau zazpikotzat ordez zortzi silabakotzat hartu behar dugu. Izan ere,, garbi

dago de forma lehen pertsonako aditz laguntzailea besterik ez dela. Idatzita dagoen moduan, Satrustegik de(ezkondu irakurtzen du, sinalefa egin eta hiru silaba ahoskatuz . Baina euskaraz ez da batere usua leherkari gorra (gure kasuan t) galtzea. Baliteke Ana Maria de Yarzaren aginduz testu berria idatzi zuenak neurria kontuan izatea, eta horregatik t hori ez idaztea, baina gure ustez errata baten aurrean gaude. Gainera, ez dirudi bertsoaren egitura zaintzeko ardura handiegirik zuenik, ez baitu errima inolaz ere gordetzen.

Hala irudituko zitzaion originalaren kopia (33 orrikoa) egin zuen eskribauari ere, leherkaria berreskuratu egiten baitu, nahiz eta originaleko idazkera nahasmenik ez sortzeko adina garbia izan. nait forma dugu bertso honetan. Ikusten denez, honakoan ere aditz laguntzailearen barnean soilketak daude, aurrekoan bezala, baina bestelakoak dira. Oraingoan bokalarteko leherkari ozena (d) da galtzen dena, eta gertakari hau bai oso emankorra da euskararen barnean. Fonema hori galduta bokaleen artean ere bestelako soiltzeak gertatzen dira, eta azkenean silaba bakarreko nait formara iristen gara (honek aurrekoak duen arazo bera izango luke oraindik, zazpi silabako bertso -lerroa gelditzen baita). Bigarren bertso honen punturik garrantzitsuena, eskribauaren ustez laguntzailearen fonema adierazgarriena t izatea (beste biak bidean galdu ditu) dela iruditzen zaigu. Honexegatik iruditzen zaigu kopia originalean duguna errata bat besterik ez dela.

Dena dela, eta azalpen bat (lerroa 8 silabakoa dela dioena) zein bestea (7koa) hobestu, bi bertsoetan bertso -lerroa dagokion neurrira ekartzeko aldaketa handiak egin behar direla ezin da zalantzan jarri.

